BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3787

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, Irale programan parte hartzen duten euskaltegiei 2010-2011 ikasturtearen bigarren txandako ikasleen matrikula-gastuak ordaintzeko.

Irale programa arautzen duen 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduak (1994ko otsailaren 11ko EHAA), Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko klase-emankizunez diharduenean, honela dio bere 23. ataleko 4. pasartean: Hezkuntza Sailburuordetzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko du, aldiro-aldiro, ekitaldi jakin batean Irale programan parte hartzeko onartzen diren ikasketa-elkarteen zerrenda.

Eginbide hau zuzen eta garaiz burutu ahal izateko, Hezkuntzako sailburuordearen 2010eko ekainaren 15eko Aginduak (EHAA, 2010eko ekainaren 29koa) 2010eko udarako eta 2010-2011 ikasturterako Irale programaren Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko ekitaldiak (konkretuki, irakastorduz kanpokoak) jakinarazi zituen, eta beraien mamikuntzan parte hartu nahi duten ikasketa-elkarteentzako deialdia zabaldu.

Agindu horren ondorioz ebazpen bi jakinarazi ditu, biak 2010eko irailaren 7koak (EHAA, 2010eko urriaren 8koa), Hezkuntzako sailburuordeak: bata, Iraleren 2010eko udako klase-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkarteak onesten dituena eta bestea 2010-2011 ikasturtean Irale programaren Sailburuordetzaz kanpoko ikastaro-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkarteak onesten dituena.

Ebazpen horiek, beren xedapen gehigarrietan, material-prestakuntza eta zenbait kasutako joan-etorri gastuak ere zehatz arauturik dituzte.

Horren guztiaren garapenez, 2010-2011 ikasturtearen bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako hainbat klase-emankizun burutu dute kasuan kasuko ikasketa-elkarteek. Emandako klase-emankizunak ordaintzea dagokio, beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

Hori dela-eta, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Ebazpen honen eranskinean zehazten diren euskaltegi eta ikasketa-elkarteei bertan adierazitako diru-kopuruak ordaintzea, 2010-2011 ikasturtearen bigarren txandako matrikula-gastuak estaltzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematen den egunaren hurrengotik hasi eta handik hilabeteko epean.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unetik izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 30a.

Hezkuntzako sailburuordea,
M.ª ANTONIA OZCARIZ RUBIO.

ERANSKINA

ARABA/ÁLAVA		
Euskaltegia	Diru-laguntza	Guztira
Laudioko UE	262,65	262,65
Euskaraz Koop. E.	1.806,30	1.806,30
Udaberria elkartea	578,40	
Hegoalde euskaltegia	328,00	
Gasteiz Adur (Kultur Elkartea IKA) Gasteiz	3.526,20	
Pinto Aratz-Ardatz (Kultur Elkartea IKA) Gasteiz	3.321,00	
Zaldiaran-Ardatz (Kultur Elkartea IKA) Gasteiz	1.328,40	9.082,00
	11.150,95	11.150,95

GIPUZKOA		
Euskaltegia	Diru-laguntza	Guztira
Irungo UE	166,40	
Beasaingo UE	1.040,00	1.206,40
Hitzez euskaltegia S.L.-Donostia	302,40	
Gernika XXI, S.L.	12.760,20	
Urrats euskaltegia s.coop.ltda.	1.188,00	
Euskaraz Koop. E.	404,04	14.654,64
Iñaki Eizmendi (Ebete-Hizkuntza Zerbitzuak)	4.396,82	4.396,82
HUHEZI, Koop. E.	2.449,63	
Emun Koop. E.	14.469,03	
Maizpide Euskaltegia-Lazkao	3.582,92	
Gipuzkoako Bertsozale Elkartea	829,50	
Urtxintxa Eskola-Gipuzkoa	1.129,28	22.460,36
	42.718,22	42.718,22

BIZKAIA		
Euskaltegia	Diru-laguntza	Guztira
Aula de cultura de Getxo (Getxoko UE)	429,00	
Enkarterrietako UE	400,80	
Txorierriko UE	248,24	
Portugaleteko UE	549,34	
Sestaoko UE	92,96	
Basauriko UE	907,36	
Durangoko UE	483,64	
Muskizko UE	719,10	
Amorebieta-Etxanoko UE	569,52	4.399,96
Orixe Euskaltegia S.A.L.-(Mikelats-Bilbo)	433,65	
Gabriel Aresti-Txinta Koop.	6.694,96	
Euskaraz Koop. E.	9.160,49	16.289,10
Aurten Bai-Zornotzako Barnetegia	4.639,18	4.639,18
Juan Mateo Zabala euskaltegia	2.230,98	
Bilbo Zaharra euskaltegia	12.986,40	
Ulibarri euskaltegia	15.564,70	
Urtxintxa Eskola-Bizkaia	109,62	
Euskal Irakaslegoa - Deustu unibert.	4.337,10	
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	54.090,46	89.319,26
	114.647,50	114.647,50